

JOSE MARI JIMENO JURIO (1927-2002)


Artaxoa harresi sendoen herri maldatsuan etorri zen mundura Jose Mari Jimeno Jurio 1927ko maiatzaren 13an. Ikastetxe desberdinetako maisu askoren ikasle, sorterriko eskolakoak barne, labe askotako ogia jan behar izan zuen bizian. Eskola-maisu zen hemeretzi urtetan herriko nekazari semea, Noain eta Lergan izan zuelarik, 1947tik aurrera, haur-irakaskuntzan lanpostua. Iruñeko seminario handian ibili ondoren, 1956an apaiztu zen eta Zangoza, Bearin, Altsasu eta Asiaingo parroketan egon zen Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren, 1970ean, sekulartu zen arte.

Ordurako bazebilen etnografia eta historia lanetan eta nabarmentzen hasia zen haren izena Nafarroako egunkari eta aldizkarietan. Altsasuko Institutuan irakasle izana, Porto hiriarren XI. mendeurrenean Erdi Aroko kongresura gonbidatua izan zen 1968an.

Egoera berriko lehen lanpostua Iruñeko San Pedro auzoan bibliotekako zuzendaritza izan zen (1970-1985). Arretaz saiatu zen hamalau urte haietan liburu zahar eta artxiboetako dokumentu ezkutuak arakatzen lan baliotsuak plazaratzeko, hala nola, *Documentos medievales artajoneses* (1968). Historian murgildu zen gero eta izenburu nagusietan honako hauek azpimarra daitezke: *Historia de Pamplona, síntesis de una evolución* (1974), *¿Dónde fue la batalla de Roncesvalles?* (1974), *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco* (1977) eta zabalkundeko hainbat idazlan.

Jimeno Jurio ez zen euskaraz mintzatzen, baina idazle gutxi bezala aha-legindu zen Nafarroako euskararen historian sakontzen. Lekukotasun zehatzekin finkatu zuen non eta noiz arte agertzen diren euskararen aztarnak orain galdurik dagoen lurraldeetan. Horren lekuko dira *Historia de Pamplona y de sus lenguas* (1995), *Navarra. Historia del euskera* (1997), *Navarra, Guipuzkoa y el euskera. Siglo XVIII* (1998).

Haren ekarpen erraldoia, halere, leku-izenena da. Euskaltzaindiaren Onomasticon Vasconiae bilduman bost liburuki burutu zituen berak: *Zizur, Galar, Oltza, Itza* eta *Antsoain* zendeetakoak; eta seigarren bat, *Iruñeari* dagokiona, Patxi Salaberri Zaratiegirekin elkarlanean egina. Gobernuaren *Nafarroako toponimia eta mapagintza*, 59 liburukiko bilduma, atera zuen lantaldearen zuzendaria ere bera izan zen.



Oparoa da idazle honen emankortasuna zabalkunde mailako idazlanetan. Beste aldizkari askoren artean, *Fontes Linguae Vasconum*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, *Punto y Hora de Euskalerría*, eta hainbat egunkaritan agertzen da haren izena. *Navarra. Temas de Cultura Popular* Diputazioaren bilduman, adibidez, 44 liburuskara harenak dira.

Euskaltzain urgazle izanik, 1991ean oho-rezko izendatu zuen Euskaltzaindiak. Eusko Ikaskuntzan Nafarroako buruordea izan zen eta *Lekuona Saria* eta *Manuel Irujo* sariak jaso zituen. Omenaldi ugari egin zizkieten kultur talde eta herrietako elkarteek.

Iruñean audazkeneko egun epelean pausatu zen 2002ko urriaren 3an.

* * *

Ospetsua izan da Jose Mari Jimeno Jurio Nafarroan azken aldiko kultur arloan, aldeko nahiz arerioen begiramen isil eta ospea bereganatuz. Gorputzez argala eta osasunez mengela, jakintza oparoak, ikuspegi zabalak eta lanerako arreta sutsuak eman zioten gizon handien itzal errespetagarria.

Ez da beti begi onez ikusia izan Nafarroari eta euskal kulturari zintzotasunez oparitu dion ondare sendo eta baliotsua, eta izan zuen horregatik oztoporik bidean. Baina egiaren adiskide fidel eta gezurraren salatzaile ausarta gertatu zen beti Jose Mari, inoiz kokildu gabe, bere ahots-izpi eskasa indar zintzurkariatz bortxatuz jendartean.

Euskaltzale guztiok zor diogu esker on eta ohore Artaxoako seme agur-garriari. Haren biziko oroitzapen ona eta lan guztien ondare baliotsua dira orain haren presentzia iraunkorra gure artean.

Jose Mari Satrustegi